

ARABA LOGÍSTICA, S.A. (ARASUR)

Sozietatearen izena

Araba Logística, S.A.

IFK

A01347582

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 2003ko otsailaren 13an emandako eskritura publiko bidez eratu zen.

EAEko Administrazio Orokorraren partaidetza bere kapital sozialean [Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari Sociedad Araba Logística, S.A. sozietatean akzioak erosteko baimena ematen dion abenduaren 2ko 295/2003 DEKRETUAREN](#) bidez onartu zen.

Sail-atxikipena

Ingurumena eta Lurralde Politika.

EJSN

6820 Ondasun higiezinak norberaren kontura alokatzea.

Sozietatearen helburua

Sozietatearen helburuak honako hauek dira: hirigintza, eraikuntza, jarduera logistikoetara zuzendutako eraikuntzen garapena eta sustapena, eta zerbitzu orokorrak ematea. Plangintza, laguntza teknikoa, kudeaketa, antolakuntza, koordinazioa, zuzendaritza, mantentze-lanak eta lan zein zerbitzu horien kontserbazioa, zuzenbidean baimendutako edozer kontratu-motaren pean. Garraio- eta komunikazio-azpiegituren obra eta zerbitzuei atxikitako "zerbitzu-guneen" kudeaketa, mantentze-lanak eta ustiapena. Lursailen eta eraikuntzen sustapena, komertzializazioa eta salmenta.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Kapital soziala

4.000.020 €

Kapital sozialaren osaera

Saba Parques Logísticos, S.A. (Abertis)	% 43,987
Araba Gertu, S.A.U. (Kutxabank, S.A.)	% 43,987
EAEko Administrazio Orokorra	% 10,000
Araba Garapen Agentzia, S.A. (DFA)	% 1,950
Erriberabeitiako Udala	% 0,077



2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	59.866 milako €
Ondare garbia	2.403 milako €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	2.291 milako €
Batez besteko langile-kopurua	3

Sozietatearen helbidea

ARASUR Plataforma Logistikoa - Araba Hiribidea, z.g. 01213 Rivabellosa (Araba)

Webgunea

www.arasur.es